



Ekintzaileek berrikuntza bat egitea bilatzen dute gizartearen ongizate orokorra hobetzeko. Hau da, zehazki, guk lortu nahi duguna. Gizarteko bi alderdien egoera aztertu dugu, etorkinak eta langabeak, eta ikusi dugunez, arazoak dituzte gizartearen parte izateko. Alde batetik, etorkinek bizitza duin bat behar dute eta langabeek lan-munduarekin berriro konektatzeko premia dute. Horregatik, harri batez bi kolpe emateko, lan-formakuntza eskola bat sortu dugu non 45 urtetik gorako langabe profesionalei lan bat ematen diegu etorkinak prestatu ditzaten lan-mundurako formakuntza integrala baten bidez. Horrela bi sektore desberdin laneratzea lortzen dugu.